

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Kale garbiketako departamenturen egoera ikusita: kale garbiketako peoi bat bajaran dagoen bitartean postua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egiten da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

“1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetaz baliatzeko aukera egongo da.”

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *“Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, albuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeratzeazko beharrianak betetzeko.”*

Oñatiko Udaleko lan poltsa agortuta dago eta inguruko udalek ez dute lan poltsarik.

Kale garbiketako peoia izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, kale garbiketako peoi bat kontratatzeke.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, kale garbiketako peoi postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.b artikulua arabera, ordezkaturako langilearen absentiak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratu. Hileko soldata gordina ordezkatzeko duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalan.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Kale garbiketako peoia (E), postua betetzeko:

Lan kontratu mota: aldi baterakoa, ezintasun egoera irauten duen bitartean

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Kale garbiketako peoiari dagokiena

- Beharrezko prestakuntza:

- Titulazioa: eskolaratze ziurtagiria
- B motako gidabaimena
- Hizkuntza-eskakizuna: 1

- Prestakuntza osagarria:

- Fitosanitarioen aplikatzaileen oinarritzko formazioa eta produktu horiek erabiltzeko gaitasuna ematen duten agiria
- Lanbide-esperientzia

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestakuntza:

- Titulazioa: eskolaratze ziurtagiria
- B motako gidabaimena
- Hizkuntza-eskakizuna: 1

3.2 Prestakuntza osagarria (gehienez 2 puntu):

- Fitosanitarioen aplikatzaileen oinarrizko formazioa eta produktu horiek erabiltzeko gaitasuna ematen duten agiria

3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 20 puntu):

0,20 puntuko puntuazioa Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (E azpikategorian), lanbidek igorritako informazioaren arabera. Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,005 puntuko puntuazioa sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan, lanbidek igorritako informazioaren arabera eta iraupena eta lanbide-kategoria adierazita.

4. Epaimahai kideak:

GGBB eta Antolakuntzako AOT
Idazkaritzako AOT.

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan
Alkatea
Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Kale garbiketako peoia, Lanbide
CSV/EKS:	SINA69ce11a3-9db2-49aa-a338-a9f604f2287a